359/2026 EBAZPENA, ekainaren 1ekoa, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Zuzendari Nagusiarena, "Mintza Jolasak 2026-27" euskarazko programa hezigarrirako deialdia onartzen duena. Nafarroako ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako eta Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailetako A ereduko ikasleei zuzenduta dago, eta 2026-2027 ikasturtean egingo da.

Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuak txosten bat aurkeztu du, eta deialdi hori onartzeko proposamena egin du. Gehienez ere, hiru eskola-orduko 460 saio eginen dira, bi tailer-modalitatetan banatuta, hiru eta bost egunekoak, hurrenez hurren.

Programaren helburua euskara curriculumean baino eremu zabalago batean erabiltzeko aukera ematea da, jarduera ludikoagoak eginez eguneroko bizitzarekin lotutako euskararen praktika intentsiboa lortzeko. Horrela, ikasleen komunikazio-gaitasuna hobetzea lortu nahi da, batez ere ahozko ulermena eta adierazpena.

Programa honetan hiru edo bost eguneko tailerra egiten da (hiru eskola-ordu egunean), etapa bakoitzerako egokia. Tailerrak hezitzaile aditu talde batek diseinatu eta praktikan jarriko ditu, izena ematen duten ikastetxeetan bertan. Arloko irakasleak taldearekin batera parte hartu beharko du jarduera horietan, bere ordutegiak ahalbidetzen dion neurrian. Talde naturalei eutsiko zaie, eta horiek ez dira, normalean, 20 ikasle baino gehiagokoak izanen.

Hezkuntza Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 15eko 245/2023 Foru Dekretuak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT:

1.- Nafarroako ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako eta Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailetako A ereduko ikasleei zuzendutako "Mintza Jolasak 2026-27" euskarazko programa hezigarriaren deialdia onartzea. Deialdia 2026-2027 ikasturtean eginen da, eta oinarriak ebazpen honen eranskinean jasota daude.

2.- Ebazpen hau eta bere eranskina www.educacion.navarra.es (Hezkuntzako berriak) eta wwww.navarra.es (Tramiteak) helbideetan argitaratzeko agintzea.

3.- Deialdi honen eta berori aplikatzeko administrazio-egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izanen zaio Hezkuntzako Kontseilariari, hilabeteko epean, errekurritutako egintza jakinarazi, argitaratu edo jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

4.- Ebazpen hau eta bere Eranskina Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuari, Hezkuntzako Ikuskapenaren Zerbitzuari eta Euskara Atalari helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Iruñean, bi mila eta hogeita seiko ekainaren batean.

HEZKUNTZAKO ETA LANBIDE HEZIKETAKO ZUZENDARI NAGUSIA

Gil Sevillano González